

JON ANAI KARMELDAR AGURGARIA

(NAPARTAÑA)

Aurē-itza.—Aspaldion euzkotarok zartada asko artu bear, nok txarto esan badogu-ta. Au, ori ta bestea. Suge-min esameslariak beti iñori kalte egiten. Beste arazorik eztabe ufean. Iñoren kaltezko marmaña, ostera, gauza ergel, anduía.

Mingain zital onek, iñoren ondasun-aintzak damu, min damotsolako edo, geure oitura, lege, ekandu, egiteko omengafi, izen andi ta abafi zilipurdi eragin ondoren, ospe ta entzute andiko deunik asko eztaukogula esan daroe. Au diñoenak ixiltzea elitzakit zail, baña alperik aldia emoten enoya, biotz dolofezko giza-semeak beti dauko zeresana-ta. Gure ama Euskadi'k deun asko sortu dauz; ta onetatik batzuk ludi osoa ospez bete dabena dira, beste batzuk ain ezagunak be eztira. Arein izenak aoz-ao dabilz, oneinak, bafiz, gitxitan dantsaguz, deun *ixilek* dira Geure endefi maite ontako deun ixil onein onoinenak eta entzutea zabaltzen alegindu bear gintzakez.

Nire gaurko asmoa auxe da: Anai Agurgafi edo deun *ixil* baten bizitza azaldu. Deun au *Josu'ren Jon Anai agurgaria* da. Baten batek berekiko esango dau: «Anaitxo ori ezta oren ezagun eza be». Egia; bere gomuteak, bizi izan zala iru gizaldi izan afen, oraindiño Nabaña-aldean bizi-bizi dirau. Gauza afigariak jazoten diran lekuetan ari-metak eta jasoten dabez gauza afigafi arein oroyak gixaldiak zear iraun dagian. Gure Anai apalak egiñen gelgariak egin ebazan lekuetan ari-metarik ezta jaso, baña bere gomutea oraindik bizi dabil napartafen artean. Onoinen-ospea ilezkoña.

Entzutez ta onoinen edo birtutez andia dan Anai karmeldar onek gauza afigari asko egin ebazan Nabaña'ko eritxoetan; batez be, bere jayoteñian, Añorbe'n. Eritxo ontan, aurten dirala

irureun urte, Urtañila'ren 1'an, jai polit bat irazan eban. Ordutik ona urtero ospatuten ixan dabe jai ori, ta aurten, eun-urteufena dalako, iñozkorik ospetsuena egin dabe. Jai ofen bañi jakin gurako dozuela-ta nago; noz ta zelan bear dan lekuan esango dogu.

Jardun dagiogun, ba, baña labur, gogaitu etzaitezán, bere bizitze-arloari.

Jon'en sorteria ta gurasoak.—Añorbe Nabaña'ko eña da, geure luñalde maite ontako beste asko lez, txiki baña polita. Ementze jayo zan Jon 1590'gn. urtean.


Bere aita Leotz'dar Martin izan zan; ama, bañiz, Azpilikueta'r Jone, Xabier'dar Pantzeska mixiolari ospetsu ta deun andiaren ama senitarteko ebana. Gurazo elizkoyak. Saspí seme-alaba izan ebezan. Semietatik azkenengoa Jon, gure Anai agurgaña.

Bela baltzak.—Txerénak gaztetatik agertu eutson bere amorua. Gexaldea. Jon oraindiño urte biko etzan. Jone bere seme kutuna lotan itxita lan apur bat egiten solora urten zan. Bat-batera, danbadaz leyoa eregi ta bela baltzak sartu yakozan gelara, ta, a zan negargaña! umetxoari erpa zoñotzez arpegia uñatzen ekioen. Bere besotxoak al ebena egin eben pristitzar areik uxatzeko, baña alperik, makalegi ziran, indar gitxi ainbat etsairen afean. Dei egin eban, baña iñok ezeutson erantzun. Aingeru jabolía ofaitiño beti dabil geugaz, ta garai artan pristitzañen erpa-artetik jarei (librau) ebena auxe izan zan. Amak, etxera zanean, atarian aurkitu eban, aingeruak araxe eroan eban-eta.

Barasoain eñira.—Urteak joan urteak etofí, Jon'en adimena argituz joyan; mutiko gustiz argia etofen. Apala, esanekoa zalako biotzez maite eben etxeko gustiak. Gogo zintzo baten jaube zan. Bederatzi urte ebazala il yakon aita. Bere osabeak eroan eban orduan, moñoitxo bat biar ebela-ta, Barasoain eñira. Emen etxeko arazoetan aldia emon eroyan. Biargin, arduratsu ta zoli ebiñan, eta osaba-ixekoren biotzak laster irabazi ebazan. Oneik seme-alabarik ezeben izan eta Jon semetzat eukien lobia izan añen; milikeri, eregu gustiak beretzako.

Jon artzaintxo. Agerpen zerutoñak.—Oso otoitz-zalea zan eta osabearenean onetarako naiko ereti ba-eban. Sañi etxeko artzañagaz mendira bialtzen eben, artaldia lañatuten, eta benetako poz-aldiak artzen ebazan Jon'en biotzak mendira joyan bakotxean. Onelantze ebiñela, eskar edo maiterakutsi andi bi artu ebazan. Ona zelan.

Jon amabost urteko zan. Negu-biotza, 1605'ko Urtañila'ren 1,



JON ANAI KARMELDAR AGURGAÑA

JARAIPENA

Bigarren goi-eskara be lenengoaren antzekoa izan zan. Arazo ederenean, artzaintzan ebilela, Miren Gizkarbiak ikertu eban. Gastetatik eban Jon'ek Andra Maria maite; bere magalpean artu egian sañi otoi egiten eutson; batez be, bere jayegun-aufeko egunetan ildura, barao ta otoi bitartez gertetan zan.

1607'ko Sortzez Garbiaren aufe-eguna. Jon artzaintzan, baña Gizkarbiaren anditasunak gogotzu. Ta amen baten aufean agertu yakon emakume edefa. Zuri-zuri jantzita, gañekoa ofaitio urdiña: Sortzez Garbia. Lenengoz zerbait izutu zan gure artzaña, baña diñotso: «Ene emakume, zeren bila?» Zuriz jantziak daran-tzuto: «Jatekorik ba-daukazu, egistazu». Jon'ek: «Bai, emen daukot neure ařatzaldekoa». Ařatzaldekoa emoteko eskua luzatzen dautso ta .. an ezta iñor agiri. Gizkarbiak ez-eban ařatzaldekorik nai, Jon'en gurari ona ta berari eutson maitasuna ikusi baño.

Bigarren agerpen onek lenengoak baño be Jainko maitasun-su geyago biztu eban Jon'en biotzean, ta ařezkero bere otoyaldiak luzeagoak ziran. Jaunak emondako argiz orduantxe ikusi ebazan munduko ařizkuak eta lekaide izateko gogo sortu yakon. Gogo au geroago ta biziago yoakon.

Bigarren Joseba.—Pozik ebilan Jon bere ardiak zaintzen; baña osabeak onen ari onekoa ta esku arteko gauzetan ain arduratsua zala ikusirik, bere mendean ipiñi ebazan etxeko ogasun gustiak. Edesti deunak diñoskuen Joseba'k Egito'ko eřegearen etxean lez, moñoi, abere ta ogusun gustiak bere eskuetan eukozan, eta laster agertu eban edozertarako gai zala. Urte gitxi bañu, asko obatu, bitan ainbat egin ebazan etxeko ogasunak.

Ezkondu gura dabe.—Augaitik edo, izeko-osabeak etxera

ezkondu ta euren ogasunen oñordeko egin gura eben. Oñela zoriontsu biziko zirala-ta egozan. Jakiñaren gañean ipiñi eben, ba, lobeak; baita bere kideko zan neskatx liraiña emazte geitzat aukeratu be. Baña Jon'en biotz-solairuan beste dei batek ots egian. Ezkontza-bizitza etxakon atsegin. Jaunak beste bizibide batera dei egitsona ba-ekian eta bere otoi-arenetan estualdi artatik aterateko sutsu eskatzen eutson.

Lekaidi.—Iseko-osabeak, albait ariñen euren gurariak beteta ikusi nai ebezan eta, ezkontzarako biar ziran zerak gertau ebezan; eztegu-eguna izentau be bai. Jon'ek, bañiz, ondo oldoztu (pentzau) arte izteko esan eutsien, baña dana alpeñik; ezkondu egin bear zala. Orduan Jon'ek, beñik-bein, autortu ta Gure Jauna artzen Iruña'ra juateko baimena eskatu eutzien; eta Iruña'ra juanik, karmeldar lekaidien atean ots egin eban. Lekaide on areik pozaren artu eben euren anaidian.

Jon'en poza etzan txikia; estualditik iges egin eban; Jaunak dei egitzon tokian aurkitzen zan.

Beriala idatzi eutsien idazki edo karta Samur bat izeko osabeai. Oneik, lobeak egin eutsoena jakiñik, asko Samindu ziran; baña Goikoaren naya ba-zan, egin zediña bere gurari deuna-ta, bat etofñi ta zerbait poztu ziran.

Lobeak kutxa zoriontzura ta izeko osaben gotsaria zerure.

SANTI, K. O.

(Uñrengoan geyago)

Gurutzeko Jon deunaren esakun mamintsuak.

17. *Ez egizu zeure guraria egin, ez egitea samingari ixango ba'yatzu be, egitea samingariago ixango yatzu-ta.*

18. *Ziltzarik (tentaziñorik) loi ta latzenak be, naimenak jaramonik egiten ezpa-dautse, eztabe ludikoikeririk tx kañenak beste Jaungoikoagana doan gogoa zikintzen eta loitzen; ori ezexe, oñelako gogoa iñoz baño ustetsuago joan daiteke Jaungoikoagana, Jaungoikoaren beraren esanari erantzuteko: «Nekez ta lorez beterik zagozen gustiok, etofñi nigana, ta neuk sendotuko zaituel».*

19. *Jaungoikoak obe deritxo bear dauana nekez ta otsegiñik barik be egiten dauanari, bear dauanez gañerako gustia gogotsu egiten dauanari baño.*



Jon Anai Karmeldar agurgaria

Jon lekaide-gei.—Jon agurgaria, munduko lokiak eten ebazanez-gero, pozaren besoetan aurkitzen zan. Zorionak bañe-irri egion, eztiro.

Bere bizitza osoa Jaunaren otseintzan emotea txikitatik opa izan eban, eta bere gurari bizi ori jadesteko ainbat eragozpen beratu bear izan ebazan. Zeruetako ama laztanak be Jon'en biotzean leku edera eukan, eta bere jopu, moñoitxo bizitza gustian be gogoz izango zala bere arpegi-azal argiak iñoan. Orain, oster, Jaunaren otseintzan betiko, Ama Neskutza biotzez maite izan zeikean tokian... Eta nok adierazo bere bañuko poz-alaitasuna? Izan be, ludiari agur-eginda, lekaretzeko aterpe-gerizpera bastertzen dan gazteak bañuan asmetan dabezan biotzkadak, azal-gatzak dira. Gozotasun-itxasuan uger, «orain ementxe betiko, Jaungoikua, gotzonak, deunak eta Miren Gizkarbia biotzez maitatzen» diño.

Jon'ek be ofelaxe iñoan bere kautan, eta oso pozik egoan kutxa aretan. Bertako arazo gustiak yakozan eñezak; Goiko Jaunaren otseintzan gauza gatzik egon daikenik be etxakon egundo begitandu. Oraindik ludiko zala, lekaretxean arazo gustiak egin-eñezak zirala iduritu yakon, eta alantxe izan be.

Lekaretxera joan zanetik laster, Jon'en eskuetan ipiñi eban nagusiak eskaratzeko ardurea. Ta Jon bai pozik arazo onetan. Mendi-geak zear artalde zuria zaintzen ebiñala be, bere gurarik nagusiena lekaretxe bateko sukaldari izatea zan. Eta ona emen len amesa baño etzan burubide edo asmoa egiztuta!

Oinkada galantak, benetan, Jon'ek onoimen-bidean egiazanak. Onak, baña, tzeñen edo diabru gaiztoaren asaña sumindu ta amofu biziz jañi eban. Txereñak, txaldana be ezta-ta, Jaunaren deyari jañaituz lekaretxean dirauan lekaidegei gaztea beretzat

betiko galdu dabela ta burua zorakeriz puztu ta ames-zoroz beterik atzera gurasoen etxera burtzen dana, guzur-lokiz bildurik, bere erpo artean ezezago euki daikela badaki; ta asmu maltzur ori lortzeko egin-alak egin daroaz. Ofegaitik lenengo urtietan lekaidegeyak bufukaldi asko izaten dabez.

Jon'en onoimen-baratza mueta gustietaiko lora pitxiz jantzita ikusten eban; eta onek bekatxaren aitari eñayetan oska egion, eta buru bide zital bat artu eban: Jon'en onoimen-lorak igitai aogozoz ondolik ebagi edo, au al ezin ba-eban, asperkerira jo ta zigofez ordain-erazo, bere amufu biziari jana emonez. Ziltzaldi, gogaikeri, jazarpen, amufu-ukabilkadak, ikera ta abar izan ziran etsai eratsu-ezak Jon'i lekaretxetik urteen eragiteko asmau ta erabili ebazanak. Batzutan itxura izugarian agertzen yakon, beste batzutan, antza aldatuta, arpegi-argiz gizon lerdan baten antzera, orain ezez iges eikian atarira edo leyora eroaten eban, gero setati lekaretxetik urtetako inotson; Jon'ek, ofaitiño, belafi-gor, ez-entzun beti; ta txeren zitalak bere burua apaltasunaren beerengo mañan ikusiz, zigorkada aitatu-eziñakaz lepoa astindu ta soiñ gustia ausi, etenduraz goñi izten eutson. Baña Josu'ren Terese Amak bere *Baen-Gaztelu edo Biztegielan* diñoanez, gizon zintzo ta onaren gogoa Jaunak bere otseñak daukazan zorion-tokia da, ta Jon, gaizkiñaren eraso ta jazar-aldiak gora-bera, bardiñ ebiñan; Jaunaren jauretxea zan bere gogua ta etzan kikilduten, aintxe bere bañuan bizi zanagana joyan uste osoz.

Jon'en otoitzaldiak bai luziak! Egun osoa otoitzan emoten ebala esan leike; gabaz be, lo gitxi ta otoi asko; iya ordu gustietan otoiketari inarduan, beañazkoa zan atsedena bakarik artuta.

Ainbat opa izan eban eguna argitu yakon azkenez. 1620'ko Kepa ta Paul deunen eguna iri-bañetsu yayo zan. Inundiko barau, gorputz-astiñaldi, zardatz, neke ta lofen bidez gertau zan egun andirako: lekaidekunde edo profesa-egunerako. Poz-pozez lekaidetu zan. Egun eder aretan Goiko Jaunari eskiñi eutsozan bere adimena, bere naimena, bere biotza, zan gustia. Zoragaña, ziñez, bera lekaidekunde txikia egiñ eban eguna!

Gauza bat ekañen Jon'ek beti gogotan; amabost urteko, mendian ardi-zain ebiñela agertu yakon ume zoragañiaren gomuta. Ume geltsu arek, «ire ardura neuk izango yoat», esan eutson: eta bere itza zearo bete ebala ikusirik, lekaikundea galazoteko txerenak afean jafi eutsozan eragozpen eta zoztor-añiak kenduz, ume txikiarenganako maitasun biziz-Josu zana ondo ekian irakiten eukon biotza. Ta sañi, korde-galduta lez, zer egiten ebanik ezekiala ebiñen.